

# Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABAETA

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaeta • 1999ko abenduak 2 • 180. zka.



## Parrokia etorkizunera begira

Iturririk iturri: Iñaki Telleria ■ Iritzia: Begoña Arenaza ■ Kirolak: Iñaki Uribetxebarria



# FRONTERA

Potentzia handia eta kontsumo txikia



**OPEL** 

Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20



*Irudimenarekin, eskulanak egiteko  
kutxak, kajonerak, bandejak,  
pertxeroak, komuneko altzariak...  
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez  
gero, geuk margotuko dizkizugu.*

## AZKARATE AROSZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

ARDATZA  
*Brikolaketa*





# Sinisduna zara? Joaten zara mezetara?

## Amaia Alberdi

(Etxekoandrea)

Bai, bai, sinisduna naiz. Lehen egunero joaten nintzen mezetara eta orain, zapatu eta domeketan seguru, bestela ahal dudanean.



## Luis Corres

(Langilea)


Zerbaitetan sinisten dut baina neure erara. Normalean ez naiz mezetara joaten, entieroetara ez bada, baina pasa den astean joatea tokatu zitzaidan.



## Joseba Altube

(Langilea)

Bai sinisduna naiz baina oso gutxitan joaten naiz mezetara. Dena dela, ez da denbora asko izan naizela.



## Carmen Madera

(Langilea)


Bai sinisduna naiz eta be-deratzi urtetan katekesiko irakaslea izan nintzen. Orain ez naiz mezetara joaten lanak uzten ez didalako.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

**Iritzia emateko daukazula?  
edo kexak esateko?  
Ausartu zaitetz  
eta bidal ezazu eskutitza  
Durana 11ra edo  
151 posta kutxatilara**

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Aitor Urrutia. **Inprimategia:** EguzkiGRAF, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



**Aretxagazeta**



## Deba Garaiko telebista 2000. urtean jarriko da martxan

Aspaldi atera zen bailarako telebista sortzekotan zebilen zurrumurrua. Orain, ordea, zurrumurrua baino gehiago da, jendea buru belarri baitadil lanean eta 2000. urterako martxan jartzea espero da.

Hilabete batzuen buruan, kablea sartzen hasiko dira gure bailaran. Kable hori sartzerakoan martxan dauden telebista guztiak kable bidez ikusiko dira, baina martxan ez daudenek ez dute gero ere aukera hori izango. Gure etxeetan, gainera, kable bidezko telebista guztiak ikusi ahal izango ditugu; besteak beste, Canal Bizkaia, TeleBilbao, Donostia telebista... Honen aurrean, atzera gelditu barik, bailarako telebista martxan jarri nahi da.

### Lau zonaldeetan banatuta

Mikel Irizar arrasatearra dabil telebistaren proiektuan buru belarri sarturik. Hainbat bilera izan ditu berak bailarako herrietako jendearekin eta azaroaren 22an Aretxabaletan izan zen lanak nola doazen azaltzeko. Lau zonaldeetan banatu dute bailara, telebista unitateak jartzeko: Bergara-Elgeta-Antzuola, Oñati, Arrasate-Aramaixo eta Aretxabaleta-Eskoriatza-Gatzaga. Erdigunea Arrasaten egongo litzateke

eta beste hiru zonaldeetan lan leku txikiak egongo lirateke. Programazioa zehaztu gabe dago baina bateratua izango litzateke eta horri, herri bakoitzeko berriak gaineratuko litzazkioke.

### Goitebe, Deba Garaiko telebista

Telebista berri honen izenari buruz ere, zerbait hitzegin da eta Goitebe da proposatzen dena. Euskaltzaindiak oraintsu Deba Garaia izenaren orde, Debagoiena hobeto legokela esan du. Hori oinarritzat harturik proiektu honen inguruko izen guztiak "goi" erabiliaz jartzea pentsatu da.

Azkenik finantziarioa geratzen da zehazteko. Zatorik haundienaz Udalak egitea kargu espero da, beste zati bat publizitatetik lortuko litzateke eta bazkideak ere egongo lirateke.

Mikel Uribetxebarria Barrena, Aretxabaletako Komunikabideakeko lehendakariaren iritziz, telebistaren emisio orduak gehitu egingo lirateke eta finantziarioa hobetu publizitatea dela-eta, beraz hau onuragarria da, baina era berean, Atxabalta telebistak gaur egun daukan askatasuna galdu egingo luke eta ez litzateke hain herrikoia izango.



Atxabalta telebista Goitebe telebista barruan sartuko da 2000. urtean

**Ezkontu**  
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 943 79 92 01

TABERNA  
**ARLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34



**LASAGABASTER-en**

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



## Udaleko langile laboralak funtzionari izendatzea onartu zen ohiko osoko bilkuran

Astelehenean, hilak 29, egin zen ohiko osoko bilkuran bederatzi puntu onartu ziren aho batez. Bertan, Udalean dau den alderdi guztietako zinegotziak izan ziren PSEko Iñaki Pierrugues izan ezik.

Hasteko, atzeratutako hiru osoko bilkuretako akten onarpena egin zen uztailaren 3koa, irailaren 27koa eta urriaren 25ekoa. Udalak Gizabidea Fundazioaz hitzarmena egin du eta Pausoka Aurrekola eraikitzeko Fundazio honi lurrak lagatzea onartu zen. Udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean bestalde, bi hitzarmen egitea erabaki zen: batetik, drogomenpekotasun teknikariaren soldata ordaintzen jarrai dezan eta bestetik, herriko liburutegitik beste liburutegi batzuetara ordenagailu bidez sartzeko posibilitatea egon dadin materiala eskuratzeko. Udalean eta Zaharren egoitzan kobratu eta ordaintzeko zeuden kopuru batzuei baja ere eman zitzaien.

Mankomunitateko batzordeetara

joateko Udaleko ordezkariak ere aukeratu ziren: kontu eta ogasunen batzorderako ordezkaria Iñaki Uribetxebarria, lurralde antolakuntza batzorderako Luis Errasti, ingurugirorako Xabier Etxebarrieta, hiltegirako Jose Antonio Zubizarreta, garapen ekonomikorako eskualde agentzi batzorderako Pablo Txintxurreta eta azkenik, bestelako zerbitzuen batzorderako Jose Mari Armentia.

33. zonaldean, Baintxan egiten ari diren industrialdeko plan partzalean hasierako aldaketa onartu zen. Urtero bezala, mantenimenduko gimnasia eta karatea kiroletxean eman ahal izateko zerbitzuak kontratatzea erabaki zen. Datorren kurtsora begira bestalde, zerbitzu guztiak konkurtsora ateratzea pentsatzen da. Azkenik, Udaleko 14 langile laboral funtzionari izendatu zituzten. Langile hauek funtzionari izateko borondatea agertu zuten eta azterketa denek pasa ostean onartzea erabaki zen.



## Herriko trafikoa poliki-poliki lehenetara

Kolektore lanak bukatzeko ez da ezer falta. Kale guztiak esateko asfaltatu dituzte eta han edo hemen txukunketa lanak falta badira ere, berehala bukatuko dituzte. Hori dela eta, herriko trafikoa ere lehenetara itzuli nahi da. Hainbat trafiko seinale jarri dituzte, bertikalak batez ere, eta astelehenean Mitarte eta

Durana kaleen norabidea aldatu egin zen. Kotxe gidarientzat ez da erreza, ohitura hartuz gero kostatzen baita aldatzea eta lehenengo egunetan batzuk gora eta beste batzuk behera ibili baziren ere, poliki-poliki eta udaltzainen laguntzaz lehenetara itzuli da. Errekabarren kaleak ere jadanik norabide bakarra du.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.





## Mozambiketik Aretxabaletara ikastera

Azken hamar egunetan gure artean ibili ostean atzo, hilak 1, berriz Mozambikerantz joan ziren Bernardo Tembe eta Daniel Machava gazteak. Mundukide fundazioak lagunduta etorri ziren eta Jose Mari Sarasua lagun zutela geratu barik ibili dira, han eta hemen, lantegi eta enpresak ezagutzen.

Mozambiqueko hegoaldean kokatutako Maputo probintziakoak dira, Matutuine distritokoak hain zuzen. 35.000 biztanleko herrialde hau Hegoafrikatik oso gertu dago. Nekazaritza eta arrantzan oinarritutako ekonomia dute, oso herrialde aberatsa da gainera. Hamabost urteko gerra jasaten ari ziren bitartean jendea banandu egin zen eta askok Hegoafrikara jo zuen. Orain poliki-poliki bueltan datoz eta herria martxan jarri nahi dute.

Hemen ibili diren bitartean kredituak nola funtzionatzen duen ikasi du-

te. Errasti zerratokian eta aroztegi txikietan nola lan egiten den ikusi zuten, Arantzazun izan ziren gaztaiak nola egiten dituzten ezagutzen, Oñatiko Lana enpresan ere egon ziren egurrekin zer egin ikasten, eta txerriak, oiloak eta oilaskoak hazten dituzten baserrietara ere hurbildu ziren. Enpresa haundiak baino txikiak eta nekazaritzari lotutakoak gehiago interesatu zitzaizkien euren herrian lurrari lotutako lantegiak jarri nahi dituztelako.


Fagorren ere izan ziren bisitan eta harrituta geratu ziren kooperatibismoan oinarritutako hain enpresa handia aurkitzean. "Kooperatibismoak lantegi txikietarako bakarrik balio zuela uste genuen eta harrituta geratu gara hainbeste industria eta hain garrantu ikustean" esan zigun Bernardok.

Aholku ugari jaso zituzten eta eurak horixe eskatu zuten, kooperazioa ez bakarrik finantzia-



## Eugenio Lacallek agur tronpeta jotzeari

Errioxako Belorado herrian jaioa, Demetrio Iriartek Briones herriko bandan jotzen ikusi eta Aretxabaletako bandara tronpeta jotzera ekarri zuen beste batzuekin batera. 1954. urtea zen. Banda hau desagertzean, Demetrioren emaztea hil ostean, Arrasatekora eraman zuen bertako zuzendariak, baina hau ere desagertu eta Bergarara joan zen. 27 urte bete ditu bertan eta jadanik erretiratzeko ordua heldu zaiola erabaki du. Hori dela eta azaroaren 21ean, Santa Zezilia bezpera, omenaldi txiki bat egin zioten Bergaran. 13 urtekin musikaren munduan sartu eta 70ekin agurra eman dio Eugeniok.



*Bernardo eta Daniel mozambikearrak Mundukide fundazioak lagunduta etorri ziren hemengo lantegiak ikusi eta ezagutzera*

**M**  
**MEMESA**  
*Industri hornidurak*  
Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

**ZARAIA  
TABERNA**  
Goizeko 5,30etatik  
zurre zerbitzuan  
Tfnoa: 943 79 88 95  
**MANTEKA ANAIK**

  
**MAPFRE**  
**Asegurook**  
Errekararren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76

**GEMES**  
• Depilazio elektrikoa  
• Makilaia permanentea  
• Kutisaren garbiketa  
Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

  
**Zubia**  
*Oinetakoak*  
Poltsak • zapatak • gerrikoak  
Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

**BENGOA  
URDAITEGIA**  
*Bertako okelak eta  
mortzilak*  
Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

**PAGALDAI**  
**Opari denda**  
Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA





### Azbe lantegiak errotulu berria

Pasa den astean aldatu zioten Azbe lantegiari errotulua. Lehen horia eta urdina zena, orain urdina eta zuria da eta Azbe izenez gain Assa Abloy agertzen da, Azbe erosi zuen multinazional suediarren izena.



### Paketeria ikastaro arrakastatsua

Pasa den aste guztiko eguerdian paketeria ikastaroa izan zen merkatarientzat. Hamar atxabalar eta hiru esko-riatzar, oso gustora ibili ziren paketeak nola egin ikasten Rosa Gorostidi irakasleaz. Honen esanetan, paketearen itxura gehiago zaindu beharra dago oso garrantzitsua baita.

### XIII. Arizmendi Topaketak

Azaroaren 25ean egin zen Gizabidea Fundazioak urtero antolatzen duen Arizmendi Topaketak ekitaldia. Aurten, sariak banatzeaz gain, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatearen inauguraketa egin zen. Inauguraketa honetan, Rodolfo Cardenal apaizak, Salvadorreko Unibertsitateko kideak, pertsona eta gizarteari buruzko hitzaldia eman zuen.



### Akordeoi Orkestrakoek afaria

Joan zen zapatuan, hilak 27, Akordeoi Orkestrakoek afaria egin zuten zazpi urteko ibilbidea ospatzeko. Bertan, orkestrako kideez gain guraso eta laguntzaileak izan ziren. Afari ostean, zazpi urtean zehar euren inguruan laguntzen ibili direnei oparitxo bat eman zien. Orkestrako 23 kideek ere jaso zuten oparia, orain arte lortutako sari guztien oroigarri gisa.



**M**obiliario  
**ARENZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

*Okindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**  
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina



## 2000. urteko efektua: nire ordenagailuari ere bai?

Hilabete baino gutxiago falta da 2000. urteari hasiera emateko eta milurtearen aldaketa dela eta hainbat aurrikuspen apokaliptiko egin dira. Milurte hau ordea, ezberdina da, sistema askoren informatizazioa dela eta (argi indarra, elektrizitatea, garraioak, telefonoak, telebistak, banketxeak, enpresetako kontabilitate sistemak). Hautetako sistema askok funtzionatu ez ote duen edo oker ibiliko ote den benetako beldurra dago, kasu askotan ondorioak oso larriak izan baitaitezke.

### 2000. urteko efektua, zergatik?

Jende askoren galdera izango da zergatik 2000. efektua eta ez 1999. efektua. Honen gakoaren ordenagailuek datak gordetzeko duten erandago. Hasieran, ordenagailuen memoria mugatua eta oso garestia zen. Hori dela eta, 1999 esaterako, lau zifrekin gorde beharrean azkenengo biek bakarrik gordetzen zen. Arazoa, 2000 urtean 00 zifrekin gordeko delako sortu da eta honek uste gabeko arazo ugari ekarriko ditu. 1997 eta 1999 urteen arteko diferentzia kalkulatu nahi izanez gero esaterako, ordenagailuek kenketa egin (99-97) eta emaitza 2 izango litzateke. 1997 eta 2000 urteen arteko diferentzia kalkulatzeko ordea, ordenagailuek berriz ere kenketa egingo luke (00-97) baina kasu honetako emaitza, -97, erabat okerra izango litzateke.

Enpresa gehienak, 2000. urtean arazorik izan ez dezaten, neurriak hartzen ari dira. Askok, hardware-a (makina) eta software-a (programak) begira diezaieten, hortan lan egiten duten informatikoak hartu eta bene-

tako testak burutzen ari dira, data, 2000 urtean jarrita. Iberiak esaterako, hegazkineko sistemen data 2000 urtean jarri eta bidaiaririk gabeko bidaiak egin ditu. Zenbait banketxe ere gauza bera egin du, kutxazain automatikoetako data aldatuz (2000. efektua dela eta bezero batek 8 milioi galdu zituen horrelako test batean).

Era berean, Espainiar Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2000. urteko efektuaren aurrean neurriak hartzen ari dira eta Administrazio Zentralaren arabera, 70.000 milioi pezeta erabiliko dira horretarako. Larrialdi plan bat ere egin da abenduaren 31ko goizeko 8etan hasi eta urtarrilaren 2ko gaueko 12etan bukatuko dena. Jarraipena, ordea, urtarrilaren 7 arte egingo da. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, 2000ko martxorarte iraungo duen jarraipen plana aurrikusita dauka.


### Etxeko ordenagailuari zer egin

Etxean PCa daukagun herritarrok larritu beharrean aurkitzen ote gara? Gutako gehienok ordenagailua jolas-teko eta testuak prozesatzeko erabiltzen dugu. Kasu honetan, ez daukagu

kezkatu beharrik. Kontabilitateko programak erabiltzen dituenak ordea, normalean Excel edo Access programak, 2000. efektua izan dezake. Honen aurrean, PCtako hardware-a eta software-a begiratzen duten produktuek atera dira merkatura. Microsoft-ek esaterako, bere interneteko orrietatik atera daitekeen Microsoft Product Analyzer deiturikoa dauka (<http://www.microsoft.com/technet/year2k/pca/pca.ktm>). Honek 2000. urteko efektuak sor ditzakeen arazo berri ematen du. 10.000 pzta. inguru balio duen Luxe-ren check 2000 PCak (<http://www.gmt-2000.com>), PCaren hardware eta software-aren analisia egiten du. Excel eta Access-eko artxi-boatetan sor daitezkeen okerrak berri ere ematen du, nola konpondu adieraziz.

Bukatzeke, abenduaren 31an lasai egoteko aholkatzea besterik ez da gertatzen. Konpainia gehienek neurriak hartu dituzte eta 2000. urteko efektu bakarra seguru asko, abenduaren 31ak jendearengan izango duena da. Beraz, norbaitek aztoratuta zabiltzala esaten badizu, 2000. urteko efektua dela erantzun dieziokezu.

*Kontabilitateko programak erabiltzen dituenak, Excel edo Access, 2000. urteko efektua izan dezake*



**Jou Diaz**  
  
**Karakina**  
 Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69  
 20550 ARETXABALETAKO

**ANDRA MARI**  
 Aholkularitza  
 - Fiskala  
 - Kontablea  
 - Juridiko/laborala  
 Andra Mari Auzunea, 3  
 ☎ 943 79 29 26

**IRIARTE**  
  
 Umeen erropa eta lentzeria  
 Durana, 8  
 Tfnoa: 943 79 10 96

**BITXITEGIA**  
**MIREN & ZURIÑE**  
 BITXIEN DISEINUA  
 BITXIEN-KONPONKETA  
 Otolara kalea  
 Eliza aurrealdean  
 Tfnoa: 943 77 13 57



# Iñaki Telleria

## Hies Ekimenako kidea

Jon Salaberrik taldea sortu zuenetik ari da lanean bertan, han eta hemen Hiesaren berri emanaz. Kallean informazio ugari egon arren, oraindik kutsatutako kasuak agertzen omen dira eta horrek loa kentzen dio.

Iñakik esan bezala Hiesaren eguna ez da abenduaren 1ean bakarrik, egunero baizik.

**- Nola hasi zinen Hies Ekimenean lanean?**

- Orain zortzi-bederatzi urte, behar bada hamar, hasi nintzen Hies Ekimenean lanean, neure borondatez hasi ere. Jon Salaberri, taldearen sortzailea, laguna nuen eta hari laguntzarren sartu nintzen. Ondoren, gero eta lan gehiago pilatzen zela ikusita langile bat jartzea erabaki zen eta bertan genbiltzanon artetik neu aukeratu ninduten.

**- Zertarako sortu zen Hies Ekimena?**

- Ofizialki 1993an sortu zen nahiz eta bi edo hiru urte lehenago jadanik lanean ibili eta batez ere seropositiboak elkartu eta elkarri laguntzeko izan zen. Ondoren, hemen gelditu barik, prebentzioa lantzen hastea erabaki zuten.

**- Zein da zure eguneroko lana?**

- Gehienbat prebentzioa lantzen dugu. Deba Garaiko herri guztietan hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, jaialdiak... antolatzen aritzen naiz. Sexualitate tailerra ere badugu eta orain Hiesaren eguna antolatzen ari gara. Prebentzioa lantzen saiatzen gara beti Hiesaren berri emanaz, bai ikastetxeetan, bai herritarren aurrean.



**“Badirudi atera berri diren retrobirusaren aurkako botikak direla-eta Hiesdunen arazoa konponduta dagoela, baina ez da horrela, ezta gutxiago ere”**

**- Ikastetxeetara sarritan joaten zarete...**

- Bai, hala da. Gaztetxoak arrisku handia duten taldea izanik, lan polita egin daitekeela eurekin uste dugu. Gaztetxo hauek, segituan, sexu harremanak izango dituzte eta guk, Hiesaren inguruan hitzegiten diegu, nola kutsatzen den, nola jar-

tzen den preserbatiboa... azken finean ez hartzeko zer egin behar duten.

**- Hiesaren inguruan nahi-koa informazio dugu?**

- Informazioa badago baina informazio hutsa, falta dena gaiarekiko goxotasuna da. Hies Ekimena eta bailarako gobernuz kanpoko erakundeek lan handia egin dugu eta informazioa badago. Hala eta guztiz, zerbaitek huts egiten du, oraindik gaztetxoaren artean VIHa kutsatzen baita. Gazteengan, esperientzia ezari bota dakiogeku errua eta nagusienengan, ohiturei.

**- Gaur egun nola bizi dira Hiesa dutenak gizartean?**

- Oso gaizki, erabat baztertuta daude. Batetik administrazioak baztertzen ditu, kreditu bat eskatu edo seguru bat egiterako orduan beti ezetza jasotzen dute, baita organu bat trasplantatzeko orduan ere. Botikak direla-eta, organuak deseginda geratzen dira eta aurrera jarraitzeko organu berrien beharra daukate. Bestetik, gizarteak baztertzen ditu. Badirudi atera berri diren retrobirusaren aurkako botikak direla-eta Hiesdunen arazoa konponduta dagoela, baina ez da horrela, ezta gutxiago ere. Botika hauek beste arazo batzuk ekarri dituzte, arazo larriak gainera.

**- Zerbait antolatu duzue Hiesaren eguna dela eta?**

- Bai, zerbait bai. Aurtengo lema izazko berdina izango da “jaurti iezaiozu lazoa”. Dena dela guk argi utzi nahi dugu Hiesaren eguna ez dela abenduaren 1ean bakarrik, egunero baizik. Guk ez ditugu ekin-tzak egun baterako bakarrik antolatu nahi, egunero-egunero egin behar da lan eta hortan gabiltza.





## Pertsona nagusien nazioarteko eguna dela eta...

**“Agian, laster batean, gu egongo gara zahartzaroan murgilduta, eta gure orduko bizipenak orain gure seme-alabei erakutsitakoaren ondorio besterik ez dira izango”**

Hain motza izan daiteke urtebete pertsona nagusi baten bizitzan, edo alderantziz hain luzea bihurtu daiteke batzuetan... Urte gutxitan izugarritzko aldaketak izan dira gizartean eta bizimoduan ere.

Lehen aiton-amonen beharrei familiak ematen zien erantzuna, beraien egunak etxean eta famili giroan pasatzeko aukera izaten zuten. Orain berriz, gero eta gutxiago dira zorte hori daukatena, eta sarritan Instituzioek bete behar izaten dute familiaren papera, eta askorentzat hau eskubide bihurtu da, familia askok Instituzioarengan delegatu baitu beraiek bete beharreko funtzioa.

Hamabost urte dira zaharren egoitzan lanean hasi nintzela, ez genuen aurkitzen hura betetzeko modurik, orduan askok eta askok ez zuten sekula pentsatu beraien azken urteak egoitza batean emango zituztenik eta bertan zeudenei erruki handiz begiratzen zieten. Beraien seme-alabengandik egindakoaren eta

emandakoaren ordaina lortuko zutelakoan ez zuten inoiz euren burua errukigarri bihurturik ikusi...

Gure gurasoak beti saiatu izan dira giza-balore batzuk erakusten, beraiek ere gurasoengandik ikasitakoak gehienak: zintzotasuna, senideen arteko elkartasuna, gurasoen eta nagusienganako errespetua, begirunea... Orain berriz, modan dauden baloreak ez dira inondik ere mota horretakoak: konpetitibitatea, formazioa, norgehiagoka, itxurakeria... marketing hutsa eta hotza.

Agian, laster batean, gu egongo gara zahartzaroan murgilduta, eta gure orduko bizipenak orain gure seme-alabei erakutsitakoaren ondorio besterik ez dira izango. Ai ama, gaur egungo nagusien enbidietan egongo gara nonbait!!!

**Begoña Arenaza**

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
**ARETXABAETA**

**DOIKALSE**

**Elektroerosio lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

**G U R E A**

*taberna jatetxea*

Durana kalea  
Tfnoa: 943 79 20 64



# Parrokia proiektu berrian murgilduta

Garai batean elizak bete-beteta egoten ziren, batzuk beren borondatez eta beste asko nahitaez joanda. Garai hauek, ordea, atzean geratu dira eta gaur egun gero eta jende gutxiago ikusten da domeketan metetara hurreratzen. Jende gutxi eta nagusia. Gure herriko parrokia, berriz, ez dago hilda, ez horixe, eta hori frogatzeko parrokiarako egin den proiektu berria daukagu. Aldaketak ekarriko dituen proiektua. Proiektu itxaropentsua.

Azkenaldian egin diren ikerketen arabera gaur egun biztanlegoaren %8 bakarrik joaten da elizara (nahiz eta gehienek sinis-dunak direla esan). Aretxabaletan 500 pertsona inguru eta nagusiak gehienak. Hiru belaunaldi falta direla esaten dute estatistikek. Datu hauek, ordea, ezkortasunera bultzatu beharrean, ekintza berriak, zehatzago esanda, proiektu berria egitera bultzatu ditu gure parrokiako hainbat lagun.

## Parrokiako proiektu berria

Parrokiako errealitateari begiratu eta hainbat galdera sortu zitzaion bertan zebilen jendeari. Norantz goaz? Zeintzuk? Zertarako eta zelan? Hitz batean, nolako parrokia nahi dugu etorkizunean? Erantzunak aurkitu nahian, 1998-an, parrokia inguruan dauden pastoral taldeetako 11 ordezkari Antonio Astigarraga parrokoaz elkartu eta proiektu berria sortu eta osatu zuten. Eztabaidak ere izan ziren bilera hauetan, baina azkenean

proiektu sendo eta berritzailea ateratzea lortu zuten.

Eperik gabeko proiektua da, gaur egungo egoera aldatu nahi duen proiektua. Bide bat izan nahi du, sortu berri den Pastoral Kontseiluari eta batez ere pastoral alor bakoitzari nondik jo erakutsiko dion bidea. Bi helburu nagusi dituela esan daiteke, batetik, fedea indartu eta sakontzea eta bestetik, fedea zabaltzea, hau da, ingurua ebanjelizatzea.

## Aldaketak ekarriko dituen proiektua

Lan honek ordea, hainbat aldaketa ekarriko du eta horretarako egin da, egin ere, gaur egungo egoera aldatzeko. Taldean landu dutenek diotenez, aldaketa nabar-



menena proiektua bera da; lehen ez zegoen ezer orain, berriz bide bat dago, nondik jo adierazten duen bidea. Antonio Astigarraga abadearen esanetan elizaren kontzeptua aldatu nahi da “eliza zerbitzu emailea izatetik, eliza ebanjelio eskeintzailea izatera pasatu nahi da”. Proiektuak bestalde, bizitzaren zikloa bete nahi du.



Horregatik jaiotzatik hasi eta heriotza bitartean fedean heitzeko aukera eskeintzen du.

Proiektua landu dutenek badakite, jakin ere, herritar batzuen gaizki ulertuak eta haserreak sortuko dituela. Aldaketa guztiek dakartzate desadostasunak eta honek ere ekarriko ditu.

## Katekesiko proiektua martxan

Momentuz, ikasturte berriarekin, katekesiko proiektua jarri da martxan. Gurasoak, euren umeen fede hezitzaile izatea da helburua. Horrela bada, haurrek etxean jasotzen dute katekesia eta hilean behin irakasleekin elkartzen dira aurrerapena ikusteko. Hasiera batean kexak eta prostetak izan baziren ere gurasoen aldetik, orain oso erantzun ona jasotzen ari direla diote katekesiko irakasleek.

Lehenengo sistema erabat zaharkitua dagoela ikusi zen parrokiako proiektua lantzerakoan. Umeek hiru urte egiten dituzte irakaslearekin jaunartzerako prestatzen baina ezer gutxi ikasten dute. Katekesiko irakasleak ere erabat nekatuta daude euren lanek fruiturik ematen ez dutela ikustean. Honek guztiak aldaketa beharra zegoela ikusiarazi eta halaxe egin da lehenengo mailan.

Aldaketa gehiago ere izango di-



*Katekesiko sistema zaharkitua dagoela ikusi zen parrokiako proiektua lantzerakoan*

ra, baina momentuz, parrokia inguruko taldeetan eztabaidatu eta nola eraman aurrera erabakiko da.

## Proiektua landu dutenek badakite, jakin ere, herritar batzuen gaizki ulertuak eta haserreak sortuko dituela

## Pastoral Kontseilu berria

Proiektu berri honek Pastoral Kontseiluaren aldaketa ekarri du. Azaroko bi astetan zehar hauteskundeak izan dira gure herriko parrokian. Hauteskunde libreak, baina mezetara joan den jendeak besterik ez du izan horren berri. Izan ere, beraiei zuzendua zegoen. Herritarren artetik bi pertsona aukeratu dituzte, Jesus Mari Herrasti eta Matilde Garai hain zuzen. Bi lagun hauek, parrokiako taldeetako ordezkari diren beste hamaikarekin eta Antonio Astigarraga parrokoaz, Pastoral Kontseilu berria osatuko dute.

Pastoral Kontseiluak, eliztarren iritzia helerazten dio parrokoari eta



Gure parrokiak, itxaropenez begiratu nahi dio etorkizunari. Askotan esaten dugu, mundua zeharo aldatu dela, eta mundua ez, baizik eta mundukoak aldatu garaia erantzuten digute. Munduko aldakuntza, nabarmena da, fede mailan behintzat. Garai bateko fedea soziologikoa bazen, gaurkoa antropologiko edo kulturala da. Garai batean denak kristau baziren, gaur egun edonor izan daiteke kristau, batez ere horrela agertzea komeni bada.

Egoeraren aldaketa batek, jarrera aldaketa eskatzen du, erantzun berriak eskatzen ditu. Federik ezak jotako gizarte batean murgildurik dagoen Elizak, ezin dezake jarraitu beste garai batzuetako baliogarri izan zitezkeen jarrerak mantenduz.

Parroki honetan eratu den Proiektuak, garai berri hauentzako erantzun apal eta xume bat izan nahi du. Badakigu, tradizioak, ohiturak eta bakoitzaren behar pertsonalak indar handia dutela oraindik; baina beste bide egokiagoak urratu nahi ditugu, Ebanjeliora gehiago hurbilduko gaituzten beste bide berriak.

Proiektu hau ez da inork inposatua izan, ez nik, parroki honetako apaiz naizen honek, ez Elizbarrutiko arduradunek; herriko kristauak beraiek izan dira, gure errealidadea ikusi eta epaitu ondoren, proiektu hau egitea proposatu zutenak. Elizaren eta gizartearen bizitzak barrukaldetik ezagutzen duten laikoak izan dira, berrikuntza baten beharrez jabeturik, proiektu hau eratzeko, lanera jarri zirenak.



azken hitza berak izan arren, erabakiak hartzen laguntzen dio. Orain proiektu berri hau aurrera eramatea izango da Pastoral Kontseilu berriaren lana. Lan zaila baina polita. Lan neketsua baina itxaropenez josia.

## PASTORAL

### KONTSEILU BERRIA:

- ◆ Oier Etxebarria
  - ◆ Pedro Etxebarria
  - ◆ Juango Arabaolaza
  - ◆ Antziñe Mendia
  - ◆ Franziska Sasiain
  - ◆ M<sup>a</sup> Carmen Lopez de Armentia
  - ◆ Mirari Altube
  - ◆ Jabier Bengoa
  - ◆ Eli Izagirre
  - ◆ Martin Zaloña
  - ◆ Joxe Olabe
  - ◆ Jesus Mari Herrasti
  - ◆ Matilde Garai
  - ◆ Antonio Astigarraga parrokoa
- buru dela.

## Parrokia inguruko taldeak

Parrokia inguruan hainbat talde daude nahiz eta gehienek gutxi batzuk bakarrik ezagutu.

- **Bataio aurreko prestakuntza** (2 lagun): bataioa egin behar duten umeen gurasoei sakramentu honen zentzu antropologikoaz gain erlijiosoa agertaraztea da helburua.

- **Katekesia** (23 lagun inguru): ebanjelizatze arlo barruan haurrei Jaunaren berri ematen diete. Kristau fedearen oinarriak eskeintzen zaie, fede heldu baten zutabeak ezartzea da helburua.

- **Sendotza** (7 lagun inguru): gazteei, Jesusen aldeko aukera aske eta pertsonala egiteko, bere ezagutza eskeintzea da helburua. Apostu hau egitean fedearen arabera biziitzea eskatzen da.

- **Liturji taldea** (6 lagun inguru): kristau elkarteari bere fedea ospatzen laguntzeko egiten zaion zerbitzua da.

- **Karitas** (4 lagun inguru): elizak behartsuekiko duen kezka bideratzen duen taldea da.

- **Helduen taldeak** (14 lagun inguru): fedearen edukietan sakontzeko taldeak dira, fedea gaztaroan geratu gabe hazten eta heziz joan dadin.

- **Osasun pastoraltza** (12 lagun inguru): elizak gaixo eta zaharrekiko duen kezka bideratzeko taldea da.

- **Ezkontza aurreko prestakuntza** (arziprestalde mailan ematen da, herriko 2 lagun daude): ezkontzaren sakramentuaren esanahia argitzea dute helburu, beste arlo askori buruz eztabaidatu eta gogoeta eginez.

- **Guraso eskola** (6 lagun inguru): helduen arteko fede heziketa lantzen da.

- **Ekonomia arloa** (3 lagun): estrukturak funtziona dezan eta zerbitzuak eskaini ahal izateko dirua gestionatzen duen taldea.

- **Obrak eta berrikuntzak** (2 lagun): eraikuntzen eta ondasunen mantenimenduaz arduratzen den taldea.

- **Elizateetako taldea** (11 lagun inguru): auzoetako parrokiei eskaini behar zaion zerbitzuak antolatzen dituen taldea. Liturji mailako eta obrei dagokien erabakiak ere hartzen ditu.

- **Pastoral Kontseilua** (14 lagun): Talde guztiak eta parrokiaren funtzionamendua orokorrean koordinatzen du, helburuak jarri eta erabaki sakonagoak ere hartzen ditu.

Badakit ez dela perfektua eta akatsak izango dituela; baina proiektu honen atzekaldean edo azpikaldean, balio handiko asmo bat dago: Ebanjelioari leialtasun gehiagorekin jarraitzea eta Jesusenganako fedea suspertzea edo esnaraztea.

Fedea bizitzarako da, bizitzeko da; fedea ez da soilik noizbehinka sakramentu edo elizkizun batzuk ospatzea. Gure proiektu hau ez dago ados Eliza sakramentu eta ospakizunen emaile eta antolatzaile dela pentsatzen dutenekin; ez dago konforme, fede mailak, gizarateak agertzen dituen kontraesanekin. Ebanjelioari leialtasuna gorde nahi dio eta fededun direnei edo izan nahi dutenei, Jesusen Berri Ona eskeintzen die. Fedeak, koerentzia eta erantzunkizuna eskatzen ditu; koerentzirik eta erantzunkizunik gabeko sinismenak ez dauka inolako etorkizunik eta, gainera, azalkei hutsean gelditzeko arriskua du.

Proiektua aurrera eramateak, arazoak sortuko ditu, parrokiaren jokaeraren kriterio bakarra ez delako izango bakoitzaren asmoa edo desioa. Baina esan behar da fedea ez dela denentzako, ez dela guztiontzako; bakoitzak aukera egin behar du, eta egindako aukeraren arabera bizi: sinisdun izan edo ez izan, eta gure jarreraren ondorioak onartu.

Zailtasunak ahaztu gabe, gure parrokiak, itxaropenez begiratu nahi dio etorkizunari: askoz txikiagoa izango den kristau elkarte, baina fede bizitzaz aberatsagoa izango dena.

Antonio Astigarraga  
Aretxabaletako parrokoa



## Euskal ligako xake jokalariaik denboraldiaren atarian

Aurten Euskal ligara igo duen Arlutz xake taldeak denboraldiari ekin berri dio. Bi ihardunaldi jokatu dituzte, eta maila honetan lehen urtea dutela kontuan izanik, txalotzeko hasiera izan da. Partida bat irabazi eta bestea berdindu egin dute.

Andoni Migel taldekideak jakinarazi digunez, maila mantentzea ez da batere samurra izango. Izan ere, "ligan dauden talde

gehientsuenak, hirietakoak dira, hau da sarritan babestuta egoten diren talde indartsuak". Hala ere, beste urte batzuekin konparatuz, Euskal ligako maila jeitsi egin da Andoniren iritziz. Hau kontuan izanik, taldeko lau jokalariaik, Fran Migel, Andoni Migel, Aitor Alkaide eta Jesus Berezibar arrasatearra, ilusioz eta itxaropentsu daude, liga gogorra izango dela dakiten arren.

### Hamalau tontorrei akabera

Felix eta Alberto Iñurrategik erronka latzari helduko diote 2.000. urtean. Izan ere, 8.000ko guztiak betetzeko falta zaizkien lau mendiak egiten saiatuko dira: Manaslu (8.163 m.), Annapurna (8.091 m.), Gasherbrum I (8.047 m.) eta Gasherbrum II (8.035 m.).

Hasiera batean bi anaiek ez zuten 14 zortzi milakoak egiteko asmo berezirik, baina ETBk egindako proposamen bati esker, modu proposa izango da hamalau tontorrei akabera emateko.

#### Patagoniara bidean

Lau tontorrak egin aurretik Iñu-

rrategi anaiek Patagonian egingo dute eskalada saio bat. Asmo horrekin abiatu dira aste honetan Patagonia aldera. Eskalatzen gozatu ederra hartu ondoren, urtarila aldera iritsiko dira etxera. Hurrengo Nepal izango dute abiapuntua, Manaslu eta Annapurna mendietara igotzeko. Gelditzen zaizkien G biak, berriz, urtearen erdialdetik aurrera saiatuko dira egiten.

Guzti honen ondoren, proiektu gehiago ere badira bi anaien eskuetan, Maliko basamortua eta Yosemite mendilerroa horien artean. Ez da erronka makala mende berria hasteko.

### Pilota jaialdia

Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataformak pilota jaialdia antolatu du hilaren 12rako. Bi partidurekin gozatzeko aukera izango dugu bertan, alde batetik, Muruamendiaraz-Idiakez bikotea Errasti anaien aurka neurtuko da. Bestetik, Koka-Taberna bikotea eta Agirre-Zearra arituko dira. Eguerdiko 11:30etan izango da Iturrigorri pilotalekuan.

### Donostiako maratoia

Joan den asteburuan ospatu zen Donostiako maratoia bukatu zuten lau atxabaltarren izenak jaso ditugu: 53. Joseba Larrinaga sartu zen, 2:38:03ko denboraz; 344. postuan, Antonio Herruzo, 3:03:10eko denboraz; 587. Fernando Uribesalgo 3:18:25 eginez eta 666. Iñigo Gasñaña 3:23:45eko denborarekin.

### Squasheko ligaska amaituta

Kiroletxean egiten ari den squash txapelketako ligaska amaitu da dagoeneko. Dena dela, final aurrekoak eta finalak jokatu aurretik, atzeratuta gelditu diren partiduak jokatu beharko dira. Final laurdenak abenduaren 11n jokatu dira eta abenduaren 18 eta 19an final aurrekoak eta finalak.

## Lasai

Miriam Manteca

MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan  
Posturen azterketa eta  
egokiizean  
diplomatus

Tfnoa: 943 77 04 34

## Leibar arrandegia

Mitarte, 1 - Loramendi, 1  
Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA



Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

gizarte-ekintza



Zenbaki

- Kontabilitatea  
- Fiskalitatea  
- Lana  
- Juridikoa

Basabe Industrialdea C  
Pab. Aretxabaleta

Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

Aholkularitza



# Iñaki Uribetxebarria

## Almen kirol elkarteko kidea

Almen kirol elkartea 1977. urtean sortu zen. Iñaki Uribetxebarriak hamar urte daramatza bertan, eta gaur egun Almen-Uda koordinadorako ordezkarietako bat da.

Ikasturte honetan elkar-teak 300 jokalaria inguru federatu ditu, futbola, saskibaloia eta eskubaloia kiroletan. Jokalari ugari izan arren, entrenatzaile eta delegatuak bilatzeko gero eta arazo haundiagoa du elkar-teak.

• **Nola eratuta dago Almen kirol elkartea?**

Elkartea zuzentzen duen batzorde bat dago, lehendakaria, diruzaina, idazkaria eta kirol bakoitzeko ordezkariak osatzen dutena. Orain bi urte, bestalde, disziplina batzorde bat sortu zen.

• **Zein da disziplina batzorde horren helburua?**


Kirol talde batzuen barruan disziplina arazo garrantzitsuak zeudela konturatu ginen. Egoera berdinen aurrean entrenatzaile bakoitzak neurri desberdinak hartzen zituen. Hori ikusita, erabaki bateratuak hartzeko helburuaz, sortu zen batzorde hau.

• **Disziplina eta kirola, batera doaz zuretzat?**

Bai, nire iritziz kirolean disziplina beharrezkoa eta oinarritzkoa da. Disziplinarik ez badago, zaila da taldean giro ona egotea eta hau ondo ibiltzea.

• **Momentu honetan zenbat federatu talde daude elkartean?**

Futbolean esaterako, infantilak, kadeteen bi talde eta neskena daude. Horrez gain, beste hiru talde daude UDA futbol elkartearekin bat eginda. Saskibaloiak lau talde batzen ditu, eta hauetako bat Eskoriatzarekin koordinatuta dago. Azkenik eskubaloian, aurten Arrasaterekin bateratzea lortu da. Koordinatuta dauden talde hauetan edozein eskoletakoek joka dezakete.



*“Gero eta zailagoa izango da entrenatzaile berriak aurkitzea”*

• **Federatuta egoteaz berba egiten dugunean, kirola eta konpetitibitatea elkartu egiten dira. Nola ikuste duzu hori?**

Kirolean markagailua jartzen den momentutik horrek esan nahi du irabazteko nahi hori dagoela eta konpetitibitatea sortzen da. Helburuak eduki egin behar dira eta horiek lortzeko borrokatu behar dugu. Honek sortu izan dizkigu arazoak. Neska-mutiko batzuek beste batzuek baino gehiago jokatzen dute, eta guraso batzuek hori ez dute ulertzen. Denek aukera berdina izan behar dituztela uste dute. Nik ulertzen dut beraien jarrera, baina ulertu behar da musikan bezala, kirolerako ere batzuek gehiago balio dutela.

• **Azken urte hauetan zein arazori egin behar izan dio aurre kirol elkarte honek?**

Bi arazo aipatuko nituzke. Alde batetik, delegatu bila aritu gara eta arazo haundiak izan ditugu aurkitzeko, beste aldetik, entrenatzaileak aurkitzeko ere larri ibili gara. Kontuan izan behar da, hau borondatezko lana dela eta gizartea, berriz, gero eta indibidualistagoa dela. Era berean, denboraren kontzeptua beste modu batean baloratzen da gaur egun, eta borondatezko lan honek denbora asko kentzen du. Bestalde, gurasoen aldetik ere laguntza gutxitu egin dela esango nuke.

• **Egoera horri aurre egiteko irtenbiderik bilatu duzue?**

Batzuetan pentsatu izan dugu, kirola egitea ordaindu egin beharko litzatekeela, beste eskolaz kanpoko aktibitateak bezalaxe. Horrela entrenatzaileak beste motibazio bat izango luke. Baina momentuz borondatezkoa izaten jarraituko du. Horregatik orain elkarteko jokariengan pentsatu beharko dugu, bertan bilatu beharko baititugu etorkizuneko entrenatzaileak.

• **Elkartean noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?**

Orain bi urteko konpromizoa daukat, eta gero pixka bat deskantsatu gurako nuke. Horrelako elkarteetan jende aldaketa egoteari komenigarria dela deritzot, ideia berriak sor daitezten. Guk ahal duguna egin dugu eta ahalik eta ondoen egiten saiatu gara.

• **Bukatzeko, Iñaki, lerro hauetatik zein mezu bidaliko zenuke?**

Udaletxeei laguntza haundiagoa eskatuko nieke, elkartean herri desberdinetako jendea baitago. Era berean, instalazioekin ere arazoak ditugu, kiroldegia hondatuta baitago. Bestetik, gurasoei esan nahi nieke, kirolak jarrai dezan denon inplikazioa beharrezkoa izango dela.



# Elhuyarretik bitxikeriak


## Droga zaharrak berri

Hitlerren garaian naziek garatu zuten droga bat modan jartzen ari da Ingalaterran. Yaba izenez ezagutzen den drogak soldadu alemaniarrek lokartzea galarazten zuten, eta badirudi gaur egun Asiako Hego-ekialdean ekoizten dutela gero European saltzeko. Izan ere, joan den hilean Londreseko Heathrow aireportuan, Irlandan eta Frantzia,n droga hori zeraman hainbat pakete atzeman zituen poliziak. Yaba droga anfetamina da eta gatzarekin,

etxeetan erabiltzen diren garbitasunerako produktuekin, katarroari aurre egiteko botikekin eta argazkilaritzako baterietako litioarekin egiten dute. Adituen ustez, Yabak merkatuan estasi droga ordezkari dezake. Naziek asmatutako droga ekoizteko sistema Thailandian berreskuratu zen duela 30 urte, eta 1970. urtera arte merkatuan legalki saldu zuten. Gaur egun Interneten ere ikus eta ikas daiteke Yaba droga etxean nola egin.

## Segurtasunik gabeko energia nuklearra

Azkenaldian energia nuklearrarekin gertatu diren ezbeharre, ezbaian jarri dute instalazio nuklearren segurtasuna. Horren haritik, hango eta hemengo instalazio nuklearren segurtasunari buruzko berri asko ateratzen ari da. Azkena Londresetik dator. Ingalaterrako Derby hiriko biztanleak kezkatuta daude bertan dagoen Rolls-Royce enpresako fabrikak ez duelako inolako segurtasun-neurririk. Derbyko lantegian Rolls-Roycek itsaspekoendako motorrak egiten ditu, baina ez hori bakarrik, motor horien errektore nuklearendako erregaia ere bertan egiten baita. Hiritarrek bazekiten fabrika motorrak egiten zirela; erregaiaren berririk, aldiz, ez zeukaten.




*• Pannila espezialitateak*

### GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

### JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08




RELOJERIA - BITXITEGIA

*Bere bezeroen zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

### BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Herriko plaza, 8 behea  
KRISTALDEGIA ☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

### IMANOL JANARI DENDA


Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

### Dorleta taberna

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15





### 1.º Criterium Internacional Ciclo-Cross

ARECHAVALETA (Gúlpúzcoa)

#### Lista de Dorsales

- |                        |                       |
|------------------------|-----------------------|
| 1. Renato Longo        | 12. R. Birichinaga    |
| 2. José Martínez       | 13. Goiriena          |
| 3. Rolf Wolfshohl      | 14. J. Solaguren      |
| 4. Michel Peichat      | 15. Santiago Zabaleta |
| 5. Jean Pierre Ducasse | 16. Nicolás Mendizuri |
| 6. Pierre Bernet       | 17. José Antonio Mur  |
| 7. Luciani             | 18. J. Gorrochategui  |
| 8. Bettinelli          | 19. Santos Ruiz       |
| 9. Alfredo Irusta      | 20. Ignacio Morata    |
| 10. Jesús González     | 21. Manuel Nava       |
| 11. Félix Iturriga     |                       |

ARECHAVALETA 10. XII. 67

RADIO-TELEVISION

José Altube

Servicio Oficial

VANGUARD

En todos los modelos y precios  
go aconsejo la calidad

VANGUARD Fida y compra la calidad

¡Ah!  
y todos los modelos  
con 2 años de garantía

Ponga un VANGUARD en su vida

Durana 36 ARECHAVALETA Telé. 791060



## 1. Ziklo Kros Kriteriuma

1967ko abenduaren 10ean, Kontzeziñoko zubia aprobetxatuz, 1. Ziklo Kros Kriteriuma egin zen Aretxabaletan. Lehenengo bi ekitaldiak Apotza-Etxebarriko zelaietan burutu ziren, Andra Mari auzune parean. Argazkian, Renato Longo, 1. Kriteriumeko txapelduna helmugaratzen ikus daiteke. Helmuga, gaur egungo Errekabarren kalean zegoen, Txakoli taberna parean. Lasterketa honetan 21 txirrindularik hartu zuen parte, esku programan ikus daitekeen bezala. Euren artean txirrindulari benetan onak zeuden, Rolf Wolfshohl esaterako, urte hartako munduko txapelketan bigarren geratua eta 60, 61 eta 63 urteen munduko txapelduna izana. 1965ean Espainiako itzulia ere irabazi zuen. 2. Kriteriuma 1969. urtean egin zen eta irabazlea Peter Fritchkenen izan zen. Ospatutako 23 kriteriumetan euskaldun bakar batek lortu zuen garaipena, Iñaki Maorik 1980. urtean.

Argazkian epailearen alboan txaloka, **Jose Olabe** eta "Juanillo" andaluz. Renato Longori **Lorea Leanizbarrutia**, **Aurori Iriarte** eta **Arantza Bengoak** eman zioten lora sorta.


Argazkia eta informazioa: Manolo Zubillaga

**San Miguel  
erretegia**

Apotza auzoa, 23  
Eskoriatza • 943 71 48 71

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETA



**BASTER-ALDE  
JATETXEA**

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Gaizartza auzoa Tfnoa: 943 79 24 58 ARETXABALETA






## LANA

- ◆ 5.OHOko ume bati klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 943 77 02 92.
- ◆ Emakume bat behar da goizetan bi orduz umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 33 19.
- ◆ Emakume bat behar da haurra zaintzeko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).
- ◆ Neska prest zapatu eta domeketan lan egiteko. Tfnoa: 943 79 03 37.
- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.
- ◆ Arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00 etara.

### Lan deialdi publikoak

- ◆ Tuterako Udalak 2 administrari ofizial behar du. Aurkezteko epea: 99/12/10 Oinarriak: NAO 99/11/10
- Udal haurtzaindegiko zuzendaria behar du. Aurkezteko epea: 99/12/12.
- ◆ Bizkaiko Foru Aldundiak gestio administratibo finantziaroko erdi mailako 17 teknikari behar ditu. Aurkezteko epea:



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

99/12/10 Oinarriak: BOE 99/11/20.

◆ Huarteko Udalak klarinete eta saxofoi irakasleak behar ditu. Aurkezteko epea: 99/12/10 Oinarriak: NAO 99/11/10.



## DENETIK

- ◆ Azaroaren 21ean Urkulura doan bidean emakume tankerako irakurtzeko betaurrekoak aurkitu ziren, funda eta guzti. Tfnoa: 943 79 10 86.
- ◆ Aretxabaletako kale batean boligrafo dotorea topatu da. Tfnoa: 943 79 73 84 (gaueko 8etatik aurrera deitu).
- ◆ 7tik 11 urte bitarteko ume bantentzako mountain bike bizikleta salgai. Prezioa, 15.000 pta. Tfnoa: 943 77 03 98.
- ◆ Rossignol markako snow board tabla salgai, fijazio eta guzti. 1,34 neurria dauka, 10-15 urte bitarteko gaztearentzat. Tfnoa: 616 286 842 (gaueko 8etatik aurrera deitu)
- ◆ "Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.

- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ Txakurra eramateko erremolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.
- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696 057 346.



## ETXEBIZITZA

- ◆ Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tfnoa: 607 798 723
- ◆ Garajea salgai Andra Mari auzunean. Plaza bakarra du. Prezioa 2.300.000 pta. Tfnoa: 943 77 02 27.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

## Jauregi

### Okindegia

Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta

## CONSUM EROSKI

Orain arrandegi  
eta okindegi, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA



# Milurteari agurra



Sartu gara azken txanpan. Egunak atzeraka kontatu beharko dira hemendik aurrera, milurtea bukatzeko eta berria ekiteko ez baita asko falta. Dena dela, egun hauek ekintzaz eta giroz betetakoak izango dira, hori behintzat ezingo dugu ukatu. Alde batetik kultura sailak oraintxu atera duen negu kulturala programak ekarriko digu non gozatu, musika, pilota partiduak, eskaparate lehiaketa... Eskerrak herriko talde batzuek deskantsurik hartzen ez duten.

**Iñurrategi anaiek** ere ez dute deskantsu gehiegi hartzeko asmorik urte berrian. Hamalau zortzi milakoekin bukatzeko falta zaizkien lau mendi tontorrei heltzeko asmoa daukate eta. Ondo egiten dute, aukera dagoenean aurrera egitea onena. Herriko pilotariak ere deskantsu gutxi hartuko dute. Kluben arteko txapelketan **Eraña** eta **Uriarte** eta **Errasti anaiek** bukatu dute lehen txanpa. Bi bikote

hauetatik **Errasti anaiek** bakarrik lortu dute klasifikatzea eta euren kategorian lehen sailkatu dira gainera.

Herriko kirolaren barruan aipatu barik ezingo ditugu utzi Iñaki Ceciagaren mutilak. Etxeko azken partiduan garaipena lortu zuten eta baloia aurkariaren atean sartzea lortu zutenak, **Egoitz Garai** eta **Jon Ander Larrinaga** izan ziren.

Batzuk jo ta ke dabiltzan bitartean deskantsua hartuko zuenik ere bada herrian. Donostiako maratoia egin ostean, **Joseba Larrinaga**, **Antonio Herruzo**, **Fernando Uribesalgo** eta **Iñigo Gastañaga** lasai egongo dira.

Bestetik, musikaren alorrean **Eugenio Lacallek** ere agur esan dio Bergarako bandari eta bere tronpetista bizitzari. Bergarako bandan egindako 27 urteek eman diote zer kontatua herriko musikari honi. Orain bere ilobei erakutsi beharko die, aitonak bezain ondo tronpeta jotzen.

Musikariak musikari... neuk ere ikasi izan banu instrumentu bat jotzen... akaso ez nintzateke orain hemen egongo... Baina baldintza eta ondorioa alde batera utzi beharko ditut eta errealitatean zentratu. Egia esan, datozen egunotan ditugun jai egunei erreparaturaz, pozik egoteko moduan gaude. Gainera musikaz gozatzeko akordeoi emanaldia izango da zapatuan. Beste batzuk irrikitan elurra bilatuko dute jai egun hauetan, danetik izango da. Mundua gustu ugaz jositako baloi txikia baita.

## Liburutegiko txokoa

### LIBURU BERRIEN ZERRENDA

- Euskal idazleen ipuin erotikoak
- Nik ere germinal! Egin gura nuen aldarri/  
Koldo Izagirre
- Errolanen harria/Patxi Zabaleta
- Hautsa eta maitemina/Joan Mari Irigoien
- Oraingo gazte eroak/Joxe Azurmendi
- Ipuin hautatuak/Jorge Luis Borges
- Señores niños/Daniel Pennac
- Ayer/Agota Kristof
- La cuarentena/J.M.G. Le Clézio
- El maestro relojero / Christophe Bataille
- La torre de los alquimistas/Peter Gustav Bartschat
- El derviche/Ramiro A. Calle
- Los amantes de Sherezade/Salima Ghezali
- El resto de la vida/Angeles Caso
- Traficantes de belleza/Zoe Valdés
- Cuatro amigos/David Trueba

- Amor en tiempos tristes/Hanif Kureishi
- Los esforzados/Albert Cohen
- En caída libre/Keityh Ridgway
- La noche de la iguana y otros relatos/Tennessee Williams
- La calle de la judería/Toti Martínez de Lezea
- Ciudad rayada/José Angel Mañas
- La cruz y el lirio dorado/Fernando Fernan-Gomez
- Háblame musa de aquel varón/Dulce Chacón
- Oro en polvo/Ibrahim Al-koni
- Donde siempre es octubre/Espido Freire
- Irlanda/Espido Freire
- Un Dios solitario y otros relatos/Agatha Christie
- Toxima/Robin Cook

Joseba Lopez de Armentia



# ABENDUA

10

13-21

3

egukotxa

egukotxa

## KONTZENTRAZIOA

Baterak antolatuta, Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak egiten du deialdia. Arratsaldeko 7retan udaletxe aurrean.

**DIPOSITIBA EMANALDIA**  
Murrukixo M.E.ak antolatuta "urte bat zuribeltzean" diapositiba emanaldia izango da Eneko Pou-ren eskutik. Udaletxe zaharrean gaueko 10etan.

## ANTZERKIA GAZTETXEAN

Gaueko 10,30etan Gaztetzean izango da. Sarrera, 300 pzta.

## MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAK

Leizarra Musika Eskolako ikasleek, egunero arratsaldeko 6retan, emanaldiak eskeiniko dituzte.

14-18

4

zapatua

11

zapatua

## AKORDEOI EMANALDIA

Akordeoi Orkestrak antolatuta, Dragan Vasiljvic akordeoilariaren emanaldia izango da arratsaldeko 8retan parrokan.

## UDAZKENARI AGUR GAZTETXEAN

Udazkenari agur esateko hainbat ekintza antolatu dituzte. Goizeko 11etan gosaria izango da gaztetzean. Ondoren, 11,30etan aitzulora irteera Matikutik. Eguerdiko 3,30etan babajana egingo da Matikun. Arratsaldean, berriz, poteoa Darbuka tan-tan taldearekin eta gauean jaialdia.

## TXOTXONGILO ERAKUSKETA

Conrad Masattik, txotxongilo erakusketa eta saioak eskeiniko ditu aste osoan zehar Galartzako dorretxean. Eskolako umeentzat ordu-tegi berezia egongo da eta herritarrek hilaren 18an goizeko 10etatik eguerdiko ordu 2ak bitartean izango dute ikusteko aukera.

8-31

## ESKAPARATE LEHIAKETA

Urtero bezala, Udal kultura sailak eskaparate lehiaketa antolatu du.

16

eguna

## ANTZERKIA

Pinpilinpausa antzerki taldeak "Zapata ondaturik" antzezlan eskaïniko die 6-8 urte bitarteko haurrei. Arratsaldeko 5etan Kurtzebarri eskolan.

8

eguaztana

12

domeka

## KOFRADIAKO BATZARRA

San Martin-San Jose kofradiak urteroko batzar orokorra egingo du, goizeko 11etan Kurtzebarri eskolan.

## PILOTA PARTIDUA

Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak antolatuta, profesionaletako bigarren mailako pilota partidua izango da. Goizeko 11,30etan Iturrigorri frontoian.



**943 71 20 02**

**GARBITU S. KOOP**  
*Garbiketa orokorrak*  
Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**ITURGINTZA**  
**J.J**  
*Jose Jabier Irure*  
**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**  
Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



Umeendak o moda  
Lezama merkatal zentrua, 15  
**ARETXABALETA**



## ikastaroak

## lehiaketak

**SUKALDARITZA  
IKASTAROA**

Loramendi euskara elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta Muru Alde gastronomi elkartean eman- go da. Abenduaren 14an hasi eta 18ra bitartean arratsaldeko 4,30etan.

**SORMEN TAILERRA**

Arantxa Arriaga terapeuta eta Antonio Lopez de Lerma psikologo psikoterapeutaren eskutik sormen tailerra antolatu da. Norberak bere buruarekin eta inguruarekin di- tuen harremanak ezagutu eta sa- kontzea du helburu. Abenduaren 11an goizean, 10etatik ordu 2etara izango da eta arratsaldean 4,30etatik 8,30etara. Abenduaren 12an, berriz, goizeko 10etatik ordu 2etara. Interesatuak 943 13 29 76 telefono zenbakira dei egin dezakete izena emateko.

**JOLASTOKIAN JOLASTU  
MARRAZKI LEHIAKETA**

Unicefek, "Jolastokian jolastu" lemapean nazio mailako marrazki lehiaketa antolatu du. 5 eta 11 urte bitarteko umeek har dezakete parte. Unicefek, postetxeetan, ta- bakodendetan, finantza erakun- deetan eta Unicefeko bulegoetan tarjetatxo batzuk jarri ditu salgai. Marrazkiak tarjeta hauetan egin behar dira, baita haurren datuak jarri ere. Marrazkiak abenduaren 22a baino lehen herriko udaletxe- ra bidali behar dira. Saria, Dani- markako Legopark jolas-parkea ikustera joateko bidaia izango da.

**BEHARREZKO  
TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**


• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdiak**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**Txarri hiltzea zuzenean telebistan**

Aste honetan Larrino auzoko Zuatzu baserrian izan dira telebista- ko lankideak kamarekin txarri hiltzea hartzeko asmotan. Zuzenean hartu ere dena eta eguakotx hone- tan etxeetako telebistetan ikusteko aukera izango dugu. Txarri hiltzea aspaldiko ohitura bada ere gure

auzoetako baserrietan, txerria odoletan ikustea eta kurriskaka entzutea gogorra izan daiteke batentzat baino gehiagorentzat, horregatik irudirik gogorrenak ez ematen saiatuko dira. Txerria hil ostean egin behar diren lan guztiak ere erakutsiko dizkigute, nola egiten diren odoloste eta mortzilak, nola zatitzen den txerria...

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Agenda Argazki-zaharrak Kirolak	ALBISTEAK Agenda Eguraldia
20:30	ALBISTE ERREPIKAPENA	ATXABALTA EZAGUTZEN
21:00	ALBISTE ERREPIKAPENA	ALBISTE ERREPIKAPENA





Bergaran sortua bada ere, gaur egun Aretxabaletan bizi da Jose Luis Olabarria. Hasiera batean Bergaran biziko zenaren ustea zuen, baina lanbideak gurera ekarri zuen. Bertan sortu zen "Olaben" orain hamabi urte. Gaur arte bizirik jarraitu du, baina Jose Luisek hasierako une latzak ez ditu ahaztu.

• **Nolako esperientzia izan zen enpresa sortzea?**

Aurreneko urteak oso gogorrak izan ziren. Hala ere, mantentzea izaten da nekezena.

• **Zer enpresa mota da Olaben?**

Okela saltzen dugu, indioilarra, base-rikko oilaskoa, untxiak, txerrikiak...

**"Moral haundia eta jarraipena behar dira enpresa bat sortzeko"**

• **Zergatik horrelako enpresa bat?**

Olaben sortu aurretik Bergarako galeper hiltegi batean lan egiten nuen. Bertan jarraitzeko ez nuen egoera batere argi ikusten eta lagun batzuek animatuta neure enpresa sortu nuen.

• **Eta hori guztia mekanika ikasi ondoren.**

Bai, sekula ez nuen horrelakorik pentsatuko.

• **Izena nondik dator?**

Bi sozio gara, eta izen biak elkartu genituen, Olabarria eta Bengoa.

• **Zeintzuk dira zuen bezeroak?**

Harakinak. Gure bezeroak bereziki Gipuzkoakoak dira baita Gasteizkoak ere.

• **Zein da zure lana konkretuki?**

Horrelako enpresa txiki batean denetik egin beharra dago.

• **Beste batentzat lan egin ala norberarentzat egitea da hobe?**

Norberarentzat lan egiten denean ardura maila haundiagoa da eta pausoak eman aurretik bi bider pentsatzen da.

• **Zein ezaugarri behar dira enpresa bat sortzeko?**

Moral haundia eta jarraipena.

• **Zer izan da samurragoa enpresari lana ala alaba haztea?**

Enpresari lana.

• **Lan osteko txikiteoa sakratua da?**

Sakratua ez, baina egunero-kotasunetik ihes egiteko momentu bat da.

• **Txikiteoa zein ardorekin?**

Rioja bat, baina urtekoa.

• **Denbora librean zer egiten duzu?**

Denbora libre asko ez daukadan arren, mendira joatea, pilota... gustatzen zaizkit.

• **Pilota ikusteko ala jokatzeko?**

Biak, noizean behin jokatu ere egiten dut.

• **Pilotari bat?**

Etorkizun haundikoa Olaizola II ikusten dut.

• **Mendi bat?**

Urrun joan barik Kurtzebarri bera.

• **Alkate bazina zer aldatuko zenuke herrian?**

Beti hobetu daiteke, baina urbanistikoki nahiko ondo antolatuta dagoen herria dela uste dut. Orokorrean herri polita da.

• **Bukatzeko, zelakoa da zure izakera?**

Nahiko zabala naizela uste dut eta adarra jotzea gustatzen zaien horietakoa.

**KOMIKIA**




Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE



**Kirolak eta sport modak**  
bat egiten duten lekua

*Leintz Bailarako  
kirol jantzia  
eta materiala*

**Esko Sport** 

Intxaurtxueta, 5  
ESKORIATZA  
943 71 52 96





# focus



**20. urteurrena eta milurtearen  
buakera ospatzeko**

*Abenduaren 1etik 31ra bitartean erositako autoek  
urtebeteko mantenimendua dohainik*



**ORAIN**  
16i - 100 cv  
20i - 130 cv  
TDdi - 90 cv

**Europan bere kategorian txoke eta estabilitatean liderra**

DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoak.: 943 790744 / 943 790745

